



## Musika sortzaile onak daudela dio Ubeda musikariak

Jon Ander Ubeda musikari eta kazetariaren ustez euskal musika sortzaile batzuek oso onak dira eta lanak izan ditu Euskarazko Produktuen Katalogoa osatzeko musikariaren aukeraketan. Bera arduratu da katalogoan musikari dagokion atalaz. Musikaz gain, liburu eta ipuinak, filmak, jostailuak eta jolasak... bildu dira katalogo honetan. **4-5. orrialdea**

## Isla plaza eraberrituta

Asteazkenean estreinatu zen bizilagunen aspaldiko eskaera zen parke berria

Haur parke berria inauguratu zuten udal ordezkariak asteazkenean Isla plazan. 20.000 euroko kostea izan du eta haur elbarrituentzat egokitutako kulunka bat dauka. Pablo Barrio alkateta, Boris Nogales eta Ana Isabel Prieto zinegotziak izan ziren parke berriari irekiera ofiziala ematen. "Aurretik bertan zeuden jolasak oso zaharrak zeuden eta ez zuten egungo segurtasun araudia betetzen. Beharrezkoa zen aldaketa" azpimarratu dute udal ordezkariak.

Horrela izanda, sei urte arteko umeentzat egokitutako jolasak jarri dira "lehenengo parkea ere adin honetako umei zuzenduta zegoen eta mantentzea erabaki dugu batez ere hemendik gertu kokatzen delako haur eskola".

Parkea aldatzerakoan, lurra berritu da eta oso kontutan



izan dira erabilitako materialak jolas lekua guztiz ziurra izan dadin. Horretaz gain, jolas bakoitzaren kokapena asko zaindu da "txirrista alde batera eta kulunkak bestera kokatu dira hauren ziurtasunerako".

Dagoeneko Eusko Tren ondoko parkea berritzen ari dira eta 2012an herriko jolas leku guztiak ondo aztertuko direla aurreratu zuten udal ordezkariak "zenbait parketako jolasak ordezkatu beharko

direla aurreikusten dugu eta kasu batzuetan parkea bere osotasunean aldatzea aztertu beharko da". Hauetan ere egokitutako jolasei lekua egingo zaie Ana Isabel Prieto zinegotziak jakinarazi zenez. •

## Adinak ez du mugarik jartzen

Gipuzkoako Jubilatuen Elkarteak V. antzerki Topaketak antolatu ditu gure herrian. Adinak eta muga fisikoek mugarik ez direla erakutsiko dute bi egun hauetan. Atzo Hondarribiako Kasino Zaharra eta Oñatiko Pake Leku elkarteko kideek Manuel Lekuona kultur-etxera hurbildu ziren herritarren barreak eragin zituzten. Gaur Urnietako Denda Berri elkarteko kideek haien lana erakutsiko dute 17:00etan eta 18:30ean, berri, ONCE elkarteko lagunen txanda izango da. •



"Las Chicas del calendario" lana izan zen atzo arratsaldean ikusi ahal izan zen lanetako bat. Ikusleen algarak sortu zituen.

### UDALA /3

Udal langileek 2012. urterako bi egutegi izango dituzte aukeran

### EUSKARA /3

Mintzodromo erraldoia izango da Okendo plaza

### KIROLA /6

Buruntzaldea Igeriketa taldeko txikiek ederki hasi dute denboraldia

# cannes


Donde las estrellas son ellos

Maskotentzako osagarriak

Txakurrentzako ileapaindegia

Aprobetxatu denda berria irekitzeagatik ditugun eskaintzak

Green enparantza 2 behe (Urbarteko parkearen parean) • Lasarte-Oria 20610  
Tel.: 943 576313 • info@canneslasarte.com • www.canneslasarte.com



DENDA BERRIA!

**Neure kabuz**



**Etorkizunari buruz**

Egungo egoeran langabezia, hazkunderik eza,... nagusi dira eta dirudienez hemen izango ditugu denboraldi batean. Mundu guztiak galdetzen dio bere buruari, aldamenekoari, edo adituari zer egin zulotik ateratzeko. Ekonomista bat badago inguruan, noski, begiradak berari doazkio... eta erantzuna bukatu baino lehen... "errudunak zuek zarete". Tira...

Azkenaldi honetan entzun ditudan zentzuzko proposamenetatik hiru aipatuko ditut. Bat, egoera kaskarrak irauten duen bitartean, zorroztasun-egitarauak leundu egin beharko lirateke, denbora tarte zabalagoan barreiatuz. Bi, Europako Banku Zentralak azken-ukerako mailegu-emailea behar du izan: likidezia gehiago sortu behar du zailtasunak dituen herrialdeei lagunduz. Hiru, sistema finantzioan gainbegiratzea zorroztu behar da, koordina-zioa handituz. Bestela zer? Egoerak horretan jarrai dezake denbora luzean ... eta euroaren porrota ekarri. Zaila da, baina hortxe erakusten dute agintari handiek euren ikusmena.

Beno, besterik ez ... Ah, bai! Landaberri Ikastolako jangela ... Badirudi Gipuzkoako ikastetxe publiko bakarra dela eskola-jangelarik gabe. Agintari guztiak, garbi dago, zeresanik badutela behingoz konpontzeko. JANGELA ORAIN!!! Gainera, udalak jantoki eskolarraren aurtengo matrikulazioa itxi du.

Ah bai! Eta ez ahaztu Mintzodromoa, euskaraz airtzeko aukera gaur ostiral arratsaldean... eta bihar... eta etzi... eta... beti.

**Iñaki Erasquin**

**Zorion-agurrak**



**Itziar**

Pausoka pausokoa... Urteak betetzen... Poliki poliki... Gurekin ospatzen! Zorionak!



**Nekane**

Zu bai alxorra! Ondo pasa zure urtetan!



**Ander**

13 urte beteko dituzu. Zorionak bihotzez amaitxo, aitona-amona eta izeba-osaben partetik.



**Eneko**

Zorionak bitxito!!!! Bi muxu familiaren partetik.



**Edurne**

Zorionak!!!! Mila eta 32 muxu zure urtebetetzean etxekoan partetik.



**Haritz**

Zorionak Haritz zure seigarren urtebetetzean gurasoen eta Olaiaren partetik.



**Maitane**

Zorionak hamarreen urteak egingo dituzula. Muxu handi bat familiaren partetik.



**Izaro**

Bi muxu potolo zure bigarren urtebetetzean aitaxo eta amatxoren partetik.



**Rakel**

Zorionak sorgina pirlina! Zazpi muxu potolo familiaren partetik.



**Patxi eta Pilar**

Patxi eta Pilar! Azaroaren 27an 60 urte elkarrekin. Zorionak famili guztiaren partetik!



**Ane**

Zorionak zure 19. urtebetetzean muxu handi bat ama, aita eta Noraren partetik!

**Ospitaleetara doan autobusaren ordutegia**

Bidaieren iraupena 15 minutukoa da

Lanegunak	Lasarte-Oriatik irteera (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.

**Azoka txikia**

**Ekaintza inmobiliarioak**

- Pisua alokatzen da Kale Nagusia. 61 6494429
- Pisua alokatzen da Aralar plaza 6. zenbakian. Harremanetarako 665 748 722.

**Salerosketak**

- Opel Corsa 1.4 Twinport Eco-tec 66kw/90cv salgai. Harremanetarako telefonoa 678 332 646 edo ibaigolet@gmail.com.

**Lan-ekaintza**

- Etxeko lanetarako eta umeak zaintzeko emakume bat behar da. Goizez bakarrik. Harreman-telefonoa: 943 364 618.

- Biyak Bat erretiratuak elkarteak joste-lanak egiten dituen begiralea behar du. Interesatuak elkarteko bulegora hurbildu behar dira, astelehenetik ostiralera, 10:30etik 12:30era.

**Lan-eskariak**

- Erizaintza eta geriatrian trebatutako gazte arduratsuak zaha-rrak zaintzen lana egingo luke. 679 526 305
- Matematika klase partikularrak ematen ditut, maila guztietan, esperientzia handia. 646717676.

**Bestelakoak**

- Arratoi mestizo urte eta erdiko zakurra oparitzen da. Oso leiala. 666 454 930

**Oharra jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

**Heriotzak**

- Agustín Muga Illarramendi, azaroaren 27an, 62 urte zituela.

**Jaiotzak**

- Ane Martínez Duarte, azaroaren 24ean.
- Neymar Guarnido Sanchez, azaroaren 21an.

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

- Ostirala, 2**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Larunbata, 3**  
Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567
- Igandea, 4**  
Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567
- Astelehena, 5**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371 151
- Astearte, 6**  
Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529
- Asteazkena, 7**  
Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

- Osteguna, 8**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549
- Ostirala, 9**  
Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567
- Larunbata, 10**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Igandea, 11**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 371 151
- Astelehena, 12**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Astearte, 13**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371 151
- Asteazkena, 14**  
Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774
- Osteguna, 15**  
Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



GFAko Kultura eta Euskararen Departamendua



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Udal langileek lan egutegia moldatzeko aukera izango dute

- Langile bakoitzak bi egutegiren artean bat aukeratuko du
- Lasarte-Oriako PSE-EE proposamenaren aurka azaldu da

Udal gobernuak 2012ko egutegia moldatzeko aukera eskaini die bere langileei. Horrela, ez ditu urriaren 12ko Pilar eguna, urriaren 25eko Euskadiren Eguna eta abenduaren 6ko Konstituzioaren eguna jai egun izendatuko, eta langileak erabakiko du egun horietan lan egin ala ez. Abenduaren 3a, Euskararen Eguna, proposatu du Udalak jai egun izateko.



Bilduren ustez herritarrei zerbitzu hobea emango dio Udalak egutegi berriarekin.

Lasarte-Oriako udal langileek aipatutako egunak jai egun nahi dituzten erabakiko dute eta nahi duenak lan egiteko aukera izango du Estatu mailan jai egun diren egunotan. Udaletik egin duten proposamen bakarra abenduaren 3a jai eguna izatea da. Hau da, euskararen eguna litzateke udalak ezarritako jai egun bakarra eta besteak langileen esku geratuko lirateke.

Proposamenak langileen ordezkari diren sindikatuen onspena jaso du eta horrela arrazoi ideologikoak edo bestelakoak medio, langileek posible izango dute aipatutako hiru jai egunetan lan egiteko. Hauen ordezkari abenduaren 3a izango dute jai egun eta besteak nahi bezala moldatzeko aukera.

Udal korporazioaren hitzetan, egin duena langi-

leen aukerak zabaltzea izan da; "aipatutako festa egun ofizial horiek jasotzen dituen lan egutegiaren ondoan langileek beste lan egutegi alternatiboa izango dute". Lan egutegi alternatibo horretan festa ofizial horiek eta lotuta dauden bi zubiak, guztira bost lan egun, ordezkatzeko dira. Zehazki, ordezkapenak Euskararen egunean abenduak 3 eta langile bakoitzak aukeratuko dituen beste lau egunetan egingo dira.

## Zerbitzu hobea herritarrei

Bilduk azpimarratu du udal funtzionamenduaren aldetik, "egindako proposamenari esker Udala egun gehiagotan ireki ahal izango dela herritarrei zerbitzua emateko" eta ez da errepikatuko datorren aste-ko egoera, hau da, PSE-EEK kudeatutako udal korporazioak onartutako egutegiarekin

Konstituzio eta Inmaculadaren inguruan sortutako zubiatatik Udala itxita egingo da datorren aste osoan. Gainera gogoratu nahi izan dute udaletxetik, orain Lasarte-Oriako proposatzen dena aspaldidanik aplikatzen ari direla Usurbil eta Hernaniko udaletan besteak beste.

## PSE-EE aurka

Lasarte-Oriako alderdi sozialista ez dago ados udalaren proposamenarekin. Hauen ustetan erabaki honekin "langileak politikoki posizionatzea derrigortzen ditu". Gainera jai egunak langileen estatutuan eta euskal dekretuan ezarrita daudela defendatzen du Jesus Zaballos alkate ohiak "udaletxeak ez dauka egutegi ofiziala moldatzeko eskumenik eta beharrezkoa bada epaitegiatarako joko dugu".

## EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA Mintzodromo erraldoia Okendon

Euskararen Eguna egun bat aurreratu eta gaur ostirala egingo da Mintzodromo Okendon jarriko den karpa batean.

Arratsaldeko 18:00tik 21:00ra bitartean euskaraz egiteko ohitura dutenak eta horren bila dabiltzanak hiru gairen inguruan mintzatuko dira lau laguneko mahaietan banatuta, ordu laudenero solaskidez eta gaiz aldatuz.

Aurten udalak Euskararen Nazioarteko Eguna bultzatzea erabaki du eta Ttaku Kultur Elkartearekin zein euskaltegiekin batera antolatu du Mintzodromo: ekitaldiari hasiera eta amaiera "Mundialak Gara" kantu taldeak eta "Xumela" abesbatzak emango die euskal abes-  
tiekin eta tartean Mailu Arrutiren "Intxaurretik Mingainera" baka-  
rrizketa ikusteko aukera ere izango da. 18:15etan eta 19:30etan hasiko diren mintzatzeko bi txandatan hainbat herritar ezagunek parte hartuko du, besteak beste, David Martin eta Mikel Unanue kirolariak, Nora Izagirre arropa diseinugileak, Pablo Barrio alkateak eta Maider Segurola kazetariak.



## GPUNTUA GIPUZKOAKO BERTSOTO TXAPELKETA

### Amaia Agirrek finalurrekoan kantatuko du

Igandean arratsaldeko 17:30etan Hernaniko Galarreta kiroldegian jokatu den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako hirugarren eta azken final-urrekoan kantatuko du Amaia Agirrek, Jokin Uranga, Ainhoa Agirreazaldegia, Iñaki Apalategi, Iñigo Mantzisoro eta Jon Martin-ekin batera.

Igandean jakingo da abenduaren 18an Donostiako Ilunbe zezen plazako finalean zein zortzi bertsolarik abestuko duten. Momentuz, Beñat Gaztelumendi eta Jesus Mari Irazu sailkatuta daude, igandean saioa irabazten duena ere finalean izango da eta beste bost puntuen arabera, beraz Aitor Sarriegi (492 puntu), Unai Agirre (490), Agin Rezola (486), Alaia Martin (482) eta Felix Zubia (479.5) igandeko puntuazioaren zain daude.

Amaia Agirrek "ilusio eta gogo" handia dauka, "baina era berean beldurra ere bai. Azken final-erdian kantatzeak bere alde on eta txarrak ditu, baina ni ahaleginduko naiz gaintu beharreko langara hurbiltzen" esan digu. Berarekin izan dugun solasaldi laburra txintxari.info orrialdean irakurri daiteke.

## ENPRESA HITZARMENA

### Ez da konponbiderik Michelinen

Erantzun ona izan du Lasarte-Oriako hitzarmen egoki baten alde Michelin enpresako sindikatuek deitutako protestak. Azken hiru asteazkenetan ordu beteko lanuztea egin dute langileek arratsaldeko 14:00 eta 15:00ak bitartean Langile Batzordeak deituta. "Hitzarmen justu eta arrazoizko baten alde" leloarekin, enpresaren sarrerako atean elkartu ziren.

LAB, CCOO, ELA eta UGT sindikatuak berriro elkartuko dira protestek hartuko duten norabidea erabakitzeko, hiru astetan lanuzteak egin dituzten arren enpresak sindikatuen eskaerei ez baitie erantzunik eman. Sindikatuen arabera asteazkenean ere produkzioa erabat gelditu zen ordu betez, baina enpresa hitzarmenari buruzko negoziaketak etenda daude. Langile eta sindikatuek ez dute enpresaren zuzendaritzak egindako eskaintza onartu. Aho batez baztertu dute eta "lotsagarria" iruditzen zaie, azken urteotan enpresak izan dituzten irabaziak kontutan izanik (192 milioi euro 2010ean).

## MUSIKA

### Zero Setteren kontzertua Valladoliden

Gaur herriko Zero Sette Akordeoi orkestrak Valladolid hiriko IX. Akordeoi jardunaldietan parte hartuko du. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan izango da Caja Españaren areto nagusian.

Elias Goikouriak zuzendutako taldeak Händel, Bruno Ruch, Gerónimo Gimenez, Gershwin, Willi Münch, Draeger, Cebrian Ruiz, Sibelius eta Chapi musikariaren lanak eskainiko ditu Gaztelako Valladolid hiriko emanaldian.



**Elisabeth ileapaindegia 51 urte bete ditu.**- Urteurrena behar bezala ospatzeko festa egin zuten azaroaren 23an Elisabeth ileapaindegian. Bertara hurbil ziren bezero eta lagunak Elisabeth Gonzalez eta bere amak urte hauetan egindako lana eskertu nahi izan zuten. Jabeak Donostiako zenbait lagunengana babesa izan zuen ere egun honetan eta bere lana aitortzen duen oroiragarria jaso zuen. Lore sorta batzuk eta plaka bat izan zituen opari hain egun berezian.



## Gonzalo Sukunza azkarrena Maratoian

Lehenengo igandean, Donostiako 34. Maratoia burutu zen. Honetan 2.311 korrikalarik parte hartu zuten 42 kilometro baino gehiago dituen proban eta herritarren artean, azkarrena, Gonzalo Sukunza izan zen. Zumeatarra taldeko herritarrak hamaikagarren postua egin zuen, helmugan 2:33:33 denbora eginez.

Proba gogorra bukatu zuten beste herritarrak, Raul Gomez, 2:41:44; Txiki Mantecola, 2:49:25; Julen Ollokiegi, 2:49:43; Ismael Hernández, 2:51:05; Imanol Arteaga, 3:09:51; Eñaut Fdz. de Lezea, 3:14:53; Xanti Trantxe, 3:15:37; Joxe Martin Arregi, 3:25:46; Mari Carmen Olaso, 3:41:05; Javi Alonso, 3:43:10; Igor Sevilla, 3:48:32; Mikel Ormazabal, 3:50:17; Peio Fadrique, 3:54:55; Javier Molano, 3:56:35 eta Sergio Rivera 04:02:22 izan ziren.

### 10 km proba

Era berean, Maratoia laurdeneko proba ere burutu zen igandean. Honetan, Jon Altuna izan zen lehenengo herritarra, 37:06, eta senior mailako 16. postua lortu zuen.

Iñigo Valdivia, 40:18; Maria Mendibe, 41:33; Xabier Gorostegui, 43:07; Iñaki Letamendi, 46:15 eta Jose Lavado, 48:10 izan ziren 10 kilometrotako proba amaitu zuten beste herritarrak.



Sukunza Maratoian. J. IPARRAGIRRE

### Azkoitiko lasterketa

Bestalde, larunbatean, azaroren 26an, Ostadarreko atletismo saileko hainbat korrikalari hurbildu ziren Azkoitia, VII. herri lasterketan parte hartuz.

10 kilometrotako proban, herriko lasterkariak honako denbora hauek egin zituzten: Mikel Izagirre, 38:38; Jose Ignacio Elvira, 38:38; Juan Mari Marcos, 38:38; Joseba Iparragirre, 43:28; Javier Sanchez, 43:41; Gorka Alvarez, 44:28; Leonardo Juarez, 44:38; Guillermo Trombotti, 44:38 eta Xabier Etxabe, 47:36. •

## Igerilari gaztetxoak ere indartsu hasi dira

Iñigo Ibarburu bigarren izan zen Euskadiko Txapelketan

Azararen 26an, larunbatean, Lasarte-Oriako Udal igerilekuan Kirok Zehaztasuneko Ligako lehenengo jardunaldia izan zen. Bertan Buruntzaldea IKT-ko gaztetxoek lehiatu ziren eta Borja Apeztegia, entrenatzailearen hitzetan, "arloteknikoan oso ondo ibili ziren eta ia gehienek haien markak hobetu zituzten".

2003 jaiotako igerilari entzuten lehenengo txapelketa izan arren, hauek igerian bikain egin zuten auzoan duen entrenatzaileak. Bederatzi gaztetxoek parte hartu zuten 50 m. bizkar proban eta Leire Martin eta Xabier Hernandez izan ziren azkarrenak.

Bikain ibili ziren ere 2002an jaiotako gazteak. Batzuk 50 m. bizkar proba egin zuten eta nesketan, Nerea Garcia bigarren izan zen, taldeko adineko errekorra ezarri. Lander Sorozabal eta Irati Arzalluzek, aldi, 100 m. Bizkar proban aritu ziren eta hirugarren postua eta laugarrena eskuratu zituzten.

Gainera, benjaminen 6x25 m. mixto erreleboan bigarren, hirugarren eta zazpigarren postua lortu zuten aurkeztutako taldeek. Baina

entrenatzailearentzat azpimarratzekoa da haurrek ederki gozatu zutela.

10 eta 11 urteko igerilariak, 50 bular eta 200 bizkar probak egin zituzten. Nesketan Nahia Jie Villamedianak lehenengo postua lortu zuen bi probetan eta bizkar proban "sekulako marka" egin zuen bigarrenari 26 segundo atereaz. Eta Leire Carcedo bigarren izan zen bular proban.

### Espainiako eskolartekoa

Honetaz gain, 11 eta 12 urte arteko gaztetxoek artean, Ainara Garcia bikain ibili zen.

100 m. bular proban "jaun eta jabe" izan zen eta Espainiako Eskolarteko Txapelketako denbora gutxienez 4 segundora geratu zuen. "Eta urte osoa dugu oraindik," azpimarratu du Apeztegiak 200 m. bizkar proban, gainera, bigarren izan zen igerilari gaztea.

Bular proban gainera, Janire Berasarte eta Maialen Casado bigarren eta hirugarren izan zen, hurrenez hurren.

Azkenik, 4x50 m. erreleboan izan zen. Nesketan bi talde atera ziren. Maialen, Nahia Jie, Janire eta Ainarak

osatutakoak lehenengo postua lortu zuen. Bigarren taldeak laugarren postua eskuratu zuen. Mutiletako talde bakarrak, aldi, bosgarren amaitu zuen.

### Gipuzkoako selekzioa

Era berean, larunbatean Gas-teizen Selekzioen arteko Euskadiko Txapelketa ospatu zen. Bertan Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu izan zen lehiatzen Gipuzkoako selekzioaren izenean.

Goizeko proban, 100 tximeletan, deskalifikatu izan zen nerbioen ondorioz irteeran alde zuzetik ateratzea-gatik.

Arratsaldeko saioan, berriz, 200 tximeletan, Iñigo bigarren sailkatu zuen eta bere marka pertsonala 4 segundotan hobetu zuen.

Orokorrean, Gipuzkoako selekzioa nagusitasun osoz gailendu zen txapelketan 831 punturakin.

Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu duenez, "emaizta hauekin, abenduren 10 eta 11ean Madrilan ospatuko den Autonomien arteko Txapelketarako sailkatzen ote denaren zain egon beharko dugu". •

## Kiroletako agenda

### ■ FUTBOLA ■

#### Ostirala 02

20:00etan, Euskalduna-Ostadar (Erregional Goren) Ubaitarte, Andoain.

#### Larunbata 03

10:15ean, Añorga-Ostadar (Alebinak) Rezola, Donostian.  
10:30ean, Texas Lasartearra-Usurbil (I. Kadetea) Michelinen.  
12:00etan, Ostadar-Sporting de Herrera (Kadeteen Ohorezko Maila) Michelinen.  
12:00etan, Astigarragako Mundar-Ostadar (I. Kadetea) Zakurmendegi, Astigarragan.  
15:30ean, Texas Lasartearra-Ekintza (I. Jubenila) Michelinen.  
16:30ean, Oiarzun-Ostadar (Jubenilen Ohorezko maila) Karla Lekuona, Oiarzun.  
17:15ean, Texas Lasartearra-Beasain (I. Erregionala) Michelinen.  
17:30ean, Martutene-Ostadar (I. Erregionala) Martutene, Donostian.

#### Igandea 04

10:30ean, Ostadar-Dunboa (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Michelinen.  
12:30ean, Intxaundi-Ostadar (Emakumezkoen Erregionala) Cesar Benito, Donostian.

### ■ ARETO FUTBOLA ■

#### Ostirala 02

HERRIKO TXAPELKETA  
Areto-futboleko pista  
19:30an, EL Punto-Dakara  
20:30ean, Balerdi Harategia-Izkiña

#### Larunbata 03

17:30ean, ISU Leioak-Lagun Onak (Euskal Liga) Kiroldegian.  
18:15ean, Inter Eder Kafetegia-Buruntza K.E. Aldaz H.K. (Nazional B maila) Mons kiroldegia, Donostian.

#### HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista  
09:10ean, Oria Krist.-Buenetxea  
10:10ean, El Bar de Mau-Izarra  
11:10ean, Trumoi-ISU Leioak

12:10ean, Illum-Ayete

13:10ean, Txindoki-Indaux

#### Igandea 04

HERRIKO TXAPELKETA  
Areto-futboleko pista  
10:00etan, Los Tiburones Rojos-Ilargi  
11:00etan, Naiban-Viña del Mar

### ■ PILOTA ■

#### Ostirala 02

19:30ean, Antigua I-Intza (Eskuz bina-ka, III. Seniorra) Ibaeta, Donostian.  
19:30ean, Urnieta I-Intza I (Eskuz bina-ka, I. urteko infantilak) Urnietan.

#### Larunbata 03

16:00etan, Intza I-Zestoa (Eskuz bina-ka, 2. urteko alebinak) Michelin-ko pilotalekuan.

#### EZKER HORMAKO FINALERDIAK

Michelingo pilotalekuan  
16:00etan, Intza-Gailurrerantz (Eskuz bina-ka, II. Kadetea)  
16:00etan, Intza-Aurrera Saiaz2 (Eskuz bina-ka, I. Kadetea)

#### Igandea 04

09:30ean, Añorga-Intza2 (Eskuz bina-ka, 2. urteko infantilak) Añorgan.

### ■ ATLETISMO ■

#### Larunbata 03

10:00etan, Landaberi eta Sasoeta ikastetxeetako gazteek eskolarteko infantil eta alebin mailako txapelketako 4. jardunaldia jokatuko dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

#### Igandea 04

11:30ean, herriko hainbat korrikalarik 33. bikote mixtoen krosean parte hartuko dute, Zarautzen.

### ■ IGERIKETA ■

#### Larunbata 03

10:00etan eta 17:00etan, Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior, promesa eta absolutuak Gipuzkoako Kluben arteko Kopan lehiatuko dira, Irunen.

#### Igandea 04

10:00etan eta 17:00etan, Buruntzal-

dea IKT-ko infantil, junior, promesa eta absolutuak Gipuzkoako Kluben arteko Igeriketa Kopan lehiatuko dira, Irunen.

### ■ TXIRRINDULARITZA ■

#### Igandea 04

10:00etan, Bazpi txirrindularitza eskolako gazteek pista Gipuzkoako trofeoeko 4. jardunaldia dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

### ■ JUDO ■

#### Larunbata 03

09:00etatik aurrera, LOKEko kadete mailako judokak Espainiako Super kopako bigarren jardunaldian den nazioarteko Totanako Hiria txapelketan parte hartuko dute, Murtzian.

### ■ ERRUGBY ■

#### Igandea 04

10:30ean, Ostadar Beltzak Jalai-Hernani (Infantil federatuak) Asti, Zarautzen.

Egunero

**Erakusketa**

ESTUDIO DEL PINTOR-eko IKASLEEN erakusketa abenduan zehar. JALGI KAFE-ANTZOKIAN.

Ostirala, 02


**Antzerkia**

GIPUZKOAKO JUBILATUEN ELKARTEAK antolatuta, V. ANTZERKI TOPAKETAK. Urnietako DENDA BERRI antzerki taldearen emanaldia izango da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 17:00etan

GIPUZKOAKO JUBILATUEN ELKARTEAK antolatuta, V. ANTZERKI TOPAKETAK. ONCE elkarteetako antzerki taldearen emanaldia izango da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 18:30ean.

**Mintzodromoa**

EUSKARAREN EGUNA ospatzeko Mintzodromoa eta hainbat ekintza antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak. OKENDO PLAZAN, 18:00etatik aurrera.



**Gaszte Asanbladaren aurkezpena**

Lasarte-Oriako gazteek egun berezia antolatu dute, ekin-tzaz betea. Musika eta jokoez gozatzearaz gain, gazte asanbladaren aurkezpena egin eta honen izena erabakiko dute Okendora hurbiltzen direnek. EGITARAUA: 17:00etan, Poteo musikatua; 18:00etan, Gaszte Olinpiadak, 20:30ean, Gaszte asanbladaren aurkezpen ofiziala; 21:00etan, afari herrikoia; 23:30etik aurrera, kontzertuak: - Pau Alabajos, - Trikihots - DjZebo

LARUNBATA 03  
17:00ETATIK AURRERA OKENDO PLAZAN



**Kontzertua**

ENEMIGOS ÍNTIMOS emanaldian Txuma Flamarike eta Jokin Pallaresk Joaquín Sabinaren abesti ezagunen errepasoa egingo dute. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, 00:00etan, GAZTELANIAZ.

Igandea, 04

**Zinea**

Haurrentzako zinea atalaren barruan, "ZOO LOCO" familia-komedia eskainiko da, MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 17:00etan. GAZTELANIAZ. Sarrera, 3,30 euro.

Asteazkena, 14

**Kontzertua**

EUSKAL MUSIKA TRESNEI buruzko KONTZERTU PEDAGOGIKOA eskainiko du O+HATZ taldeak. 5-6 urtetatik aurrerako haurrentzako emanaldia da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 18:00etan. KUTXAK babestua.

Osteguna, 15

**Zinea**

OKENDO ZINEMA taldearen eskutik, Santiago A. Zannouren "EL TRUCO DEL MANCO" filma ikusgai. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 21:30ean, GAZTELANIAZ. Sarrera, 4,30 euro.

**Dagokionari**

**Zakur jabeek meza**

Irakurle batek ohar bat bidali digu zakurren jabeek duela gutxi gertatu den eraso baten berri emateko. "Arratoi-pozioa jartzan ari da maltzur madarikaturen bat Lasarten. Animalia hori (persona batek ez baitu horrelako jokabiderik) erretxiduta egongo da, ozipinduta, eta gure maskotak pozoizten ari da. Igandean Txiki galdu genuen, iorki arrazako 12 urteko zakurra eta oraindik senditaratzen une gozo asko pasatuko zituena. Udalean konponbiderik ematen ez dutenez, erne ibiltzeko esan nahi diegu denei. Mila esker".

**Oharrak**

**Ostadar SKT-ko loteria**

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak jakin arazten du, aurten ere gabonetako loteria duela salgai, 92.646 zenbakia, hain zuzen ere. Erosi nahi duenak Geltoki kaleko bulegoan salgai du.

Bestalde, Aurten BM Supermerkatuak emandako otar bat zozketatuko du bazkide guztien artean. Adi abenduan 23an Ostadarreko ateetan eta www.ostadarkf.org helbidean zenbaki irabazlea jarriko baitute.

**GAP saio berriak kirolegian**

Udal Kirol zerbitzuak, GAP ikastaro berri bat eskaintzen ditu.

Saioak astelehena eta asteazkenetan arratsaldeko

16:00etan dira. Saioen iraupena 50 minutukoa da eta bertan gorpuzaren atal ezberdinak landu eta garatzen dira, adibidez, gluteoak, sabela eta hankak. Eta tarteka indoor txirindularitza saioak ere txertatzen dira.

Ikastaroa dagoeneko hasita dago. Izena eman nahi dutenek edo informazio gehiago nahi dutenek Kiroldegiko bulegoetara jo edo 943 376182 telefonora dei dezakete.

**Gasolina merkeago Aterpea-rekin**

Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, ordainketa egiteko garaian, %2ko beherapena

izango dutela gogoratu du Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak.

Aterpea Merkataritza elkarteak martxan jarritako kanpaina da eta txartelaren erabilera sustatzea du helburu nagusia.

**Euskal Dantza Taldea**

Landaberri BHIIn entsaiatzen duen Euskal Dantza taldea, Felix Telleriak zuzendutakoa, lanean da.

Entseguak astearte eta ostegunetan dira 20:00etatik 21:00etara.

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

**Euskararen eguna**

**Euskarazko hedabideek, erakundeek konpromisoa behar dute**

Bederatzi hilabete badira euskarazko hedabide ez publiko agerraldi publikoa eta kanpaina bateratua egin genituela, hiru helburu nagusirekin

1. Sektorearen estrategikotasuna eta beharra azpimarratzea. Komunikazioaren eta hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik ez ezik, ekonomia ikuspegitik ere estrategikoa eta garrantzia handikoa den sektore bati buruz ari gara hitz egiten.
2. Erakunde publikoek sektorearekiko konpromiso handiagoa eskatzen zitzaizkien, publizitate-inbertsio, bestelako inbertsio eta laguntza handiagoak, gaurtik bertatik hartuta.
3. Horretaz gain, sektoreak egoeraren analisisia egin eta analisi horretatik abiatuta ildo nagusiak erakundeekin lantzen hasteko konpromisoa hartu zuen.

2012. urtea ate-joka dugu, eta erakundeetatik sektoreari begira jasotzen ari garen mezuak kezagarriak dira, ikaratzeko modukoak.

1. 2012rako aurrekontu proposamenean jasota daudenak betetzen badira, Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideentzako zituen diru laguntzak ezerezean dira, 2012ko aurrekontuetatik erabat desagertuko da hedabideetan euskara sustatzeko diru partida. Gainera, 2011ko bigarren epealdiko laguntzak desagertzeko arriskua ere handia da.
2. Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako aurrekontuak onartzen badira, erakunde horrek aurten baino 400.000 euro gutxiago bideratuko ditu 2012an hedabideen diru laguntzetara. Urteetan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrak goraka joan direnean, euskalgintzara eta euskarazko hedabideetara bideratutako diru sailak ez dira handitu; orain, aurrekontuetan estutasunak sortu direnean, ez dago gupidarik: lehendik estu dabilen sektore bati are kalte handiagoa egiteko aukera zabalduko da.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko diru sailari eustea aurreikusi du -aurreko bi urteetan asko jaitsi da diru sail hori, eta ez du handituko-. Bizkaiko Foru Aldundia da 2012rako bere aurrekontuetan diru saila handitzea aurreikusi duen bakarra -47.500 euro gehiago, %12ko igoera-.
4. Eta zer esanik ez Iparralderi buruz, non euskaldun hiltunen galera bizkorra (hizkuntza politika publiko baztertzailaren ondorioz) anbiziorik gabeko hizkuntza politika batekin pareleloan doan. Enpresa pribatuak euskarazko hedabide berriak sortzen dituzten bitartean, laguntza publikoak oraindik geldialdi berean mantentzen dira eta, aldi berean, botere publiko gehienek ez dituzte kontuan hartzen euskarazko hedabideak beren publizitate kanpaina ordaindutan.

Jakitun gara sektorearen etorkizuna gure lanaren baitan dagoela nagusiki. Guk geuk ere aztertu behar ditugula gure indargune eta ahuldadeak, sektorean elkarrekin jardunda erazagoa izango zaigula garai zail honi aurre egitea. Zeregin horretan ari gara hilabete hauetan eta laster batean gure hausmarketa instituzioetako arduradunekin partekatu ahal izango dugu. Baina argi dugu aurrera egiteko ezinbestekoa dugula erakunde publikoen laguntza handiagoa, eta hori ari gara aldarrikatzen une honetan.

Gaur egungo erakunde publikoen dinamika ez du asko laguntzen bide horretan, eta ezin dugu isilik geratu ikusten dugunean euskarazko hedabideen sektoreak ez duela erakunde publikoek 2012ko aurrekontu proposamenean behar eta merezi duen trataera jasoko, ustez denen begietara sektore ezinbesteko eta strategikoa izan arren. Horregatik, erakundeek publikoki eskatzen diegu gaiaren garrantzia kontuan hartzeko eta aurrekontuak ahalik eta gehien egokitzeko, partidak handituz.

Euskarazko hedabide ez publikoak

## Katxiporretak disko berria, DVDa eta liburuak atera ditu

Udazkenero bezala hainbat produktu berrirekin datoz Pirritx, Porrotx eta Marimotots: diskoa, DVDa, Bonberenea txarangaren CD-DVDa eta bost liburu egongo dira salgai Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen azokan. Zazpikoloroa ikuskizun berria aurkezten ari dira; Usurbilen abenduaren 8an izango dira kiroldegian, 16:00 eta 18:30ean, eta emanaldi bereziak dituzte BECen hilaren 17an 18:00etan eta 18an 12:00 eta 18:00etan.

Zazpikoloroa izena du Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 20 ipuintxo eta beste hainbeste abestirekin kaleratu duten CD berriak, "loroa, piraten hegaztia delako, txori alaia, koloretua,..." eta ostadarraren zazpi koloreak dituen".

Joxe Mari Agirretxek azaldu digunez, elkartasuna du oinarri aurtengo ikuskizunak eta diskoak, pertsonaiak Ane eta Patakon piratak izango dira eta arlo askotako hainbat elkarteri eskaini diote abestia, besteak beste, Banaiz Bagara, Ongiz gizonen elkarteari, Etiopia Utopiari edota Ekolapikori, eta Motxila21 Down Sindromea duten musikariek

osatutako rock taldearekin abesti bat grabatu dute.

Letra gehienak bertsolarienak dira, Amaia Agirrek egin du bat, eta elkarreetako kideekin batera, besteak beste, Esne Beltzako Xabier Solanok Zea Mayseko Aiora Renteriak, eta Amparanoiako Amparok kantatu dute. Honek, rantxera bat euskaraz.

### Pupu eta Lore DVDan

Bestalde iazko ikuskizuna jaso dute zuzen zuzenean "Ongi etorri Pupu eta Lore" DVDan. Martxoan Urnietako Sarobe antzokian egindako grabaketari, erreportajeak, bideo klipak, karaokea eta abestien partituras gehitu diz-



Uzta oparoa darama Katxiporreta taldeak Durangoko Azokara.

kiote. Irudiak grabatu eta muntatzeaz arduratzen den Isa Fz de Agirrek azaldu digunez, hainbat bideo daude DVDan, besteak beste, Lasarte-Oriako Antzerki eta Dantza Eskolaren historiari buruz Kukukarekin grabatutakoa, Porrotx-ek Palestinara egindako bidaiaren kronika eta Lasarte-Oriako hainbat taldeekin eta Bonberenea txarangarekin Villa Mirentxun grabatutako LipDub-a.

Aurten gainera Bonberenea


txarangarekin disko-DVDa atera dute, hainbat bideo-klipekin, tartean, "Maite Zaitut" abestiaren gorrentzako bertsoia, zeinu hizkuntzan aditu den Ainhoa Moiuari esker.

Liburuei dagokionez, haur txikientzat kartoizko "Pupu eta Lore", "Pirritx", "Porrotx" eta "Mari Motots" liburuak argitaratu dituzte, "lau hitzetan bakoitza nor den azaltzen dute", eta "Sirenen Kantua" ipuina, Ane eta Patakon piraten abentura. •

## "Twist" nobela mardula aurkeztu du Donostian Harkaitz Canok

Euskal Herrian 80ko hamarkadan kokatu duen 'Twist' nobela mardula aurkeztu zuen atzo goizean Harkaitz Canok Donostiako Udal Liburutegiko sotoan. Sekula idatzi duen eleberririk luzeenean, pertsonaia nagusiaren bi adiskide bahitu, torturatu, hil eta desagerrarazi egin dituzte, beraz Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren kasua dakar gogora. "Pertsonaiak fikzioak dira, istorioa fikzioa da, baina, jakina, bai pertsonaiak eta bai istorioa 80ko hamarkadaren ispiluan jarriak izan dira, ispilu deformante batean" esan zuen aurkezpenean Cano lasarteoriatarrek.

Durangoko Azokara begira, hiru liburu berri ditu besapean Harkaitz Canok, Susarekin argitaratu duen aipatutako Twist nobela, Huacanamano argitaletxearekin gaztelaz atera duen "Compro Oro" lehen poema liburua eta Txalapartarekin "Telezailak" liburua, beste idazle batzuekin batera egindakoa. •



Usurbilgo OIARDO Kiroldegian  
2011ko abenduaren 8an, bi saio:  
16:00etan eta 18:30etan

## Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

"Zazpikoloroa"  
lan berriaren aurkezpen emanaldia

**Sarrerak:** aurretik 6 euro / egun berean 7 euro (12 hilabete arteko haurrek doan)  
**Salgai:** Zarautz (Txiki Polit)  
Zumaia (Turismo bulegoa)  
Lasarte (Artizar)  
Hernani (Leokadisti)  
Usurbil (Bordatxo, Marije eta kiroldegia)  
**Antolatzailea:** ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldea.